

CASTO SUINAGA

Ermuarra jaiotzez, gurasoek Eibarko armeria eskolan apuntatu zuten, bertako fabriketan lan egin zezan gero. Castok nahiago izan zuen zesta punta, eta laister aurkeztuko zen Deustuko frontoian debutatzera. Bertan arrakasta izan, eta estatuko frontoi nagusienetan jokatzeari ekingo zion laister, luze izan zuelarik arrakasta huetan, Madrilgo Euskal-Jaien esaterako. Garaiko onenen mailara iritsi zela esaten da (Irun, Portal...) bere jokuaeren elegantzia eta abileziari esker. Kobratu ere ala egiten omen zuen, poltsikoak ondo beteta zituelarik. 1895ean hilko zen, Eibarren, biriketako tisisak jota (*La Epoca*, 1895/08/16). Bere heriotza omentzeko bi pelota partidu burutu omen ziren, bertako irabaziak Ermuko hilerrian Castorentzat mausoleo bat eraikitzeko erabiliz (*El Imparcial*, 10.273. Zenb., 29. urtea, 1895/12/13).

Bere jokatzeko moduari dagokionez, aurrelaria zen, zegoen onenetako bat bolea garbia eta elegantearekin. Azkarra zela eta kantxa osoan zehar azkartasunez mugitzeko gaitasuna zuela esaten digute garaiko kronikek (J. *El Pelotari*, 21. Zenb, 2. orr), aurkariari jokatzeko lekuri utzi gabe, eta bere pelotak erraztasunez moztuz. Akats bezala, indar falta egozten zioten, eta baita bere buruarenganako ziurtasun falta ere, publikoa bere aurka jartzen zenean hareagotu egiten zena, publikoaren jarrerak gehiegi eragiten ziola esaten delarik.

Izaerari dagokionez berriz hitz onak besterik ez dituzte: umila, publikoa pozik izaten saiatzen dena, zintzoa, eta, irabazten joanda ere, bukaeraraino borrokatzen zuena zela zioten.

Nacido en Ermua, sus padres lo inscribirían en la escuela de armería de Eibar para que aprendiese un oficio serio, pero él preferiría la “cesta punta” y pronto debutaría en el frontón de Deusto. Tuvo éxito y pronto sería solicitado para jugar en los mejores frontones estatales, cosechando éxitos en todos ellos. Llegaría a ser uno de los mejores de su época, gracias a la elegancia y la habilidad de su juego. También dicen que cobra en correspondencia. Moriría en Eibar en 1895, afectado por la tisis (*La Época*, 16/08/1895).

En cuanto a su estilo de juego, sería delantero, con una bolea limpia y elegante. Las crónicas de la época nos dicen que era rápido y que parecía llenar toda la cancha (J. *El Pelotari*, Núm. 21, Pag.2). Su defecto serían la falta de fuerza y la falta de confianza en sí mismo, dejándose influenciar demasiado por el público.

Sobre su personalidad nos dicen que era humilde, que intentaba mantener al público contento, y que luchaba hasta el final.